Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala
T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

ÁREA DE EDUCACIÓN, PARTICIPACIÓN CIUDADANA Y JUVENTUD
Escuela de Música Joaquín Maya

HEZKUNTZA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GAZTERIAKO ALORRA
Joaquín Maya Musika Eskola

JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLA BEREZIA

# MATRIKULAZIO KANPAINA
# 2021-2022ko IKASTURTEA

# MATRIKULA WEBGUNEAREN BIDEZ EGITEKO GIDA



## HASI AURRETIK…

Hasi aurretik… “eskura” izan behar duzu:

- **Espediente-zenbakia:** sms eta/edo e-mail bidez jaso duzu azken egunotan, eta aurreko ikasturtean ikasle izan bazara, noten buletinean ere jasota dago.
- **Zure telefono mugikorra,** zure espediente-zenbakia sartu ondoren sarbide-kode bat bidaliko baitizugu bertara. Gogoratu kodea bidaliko dizugula behin-behineko izen-ematean edo aurreko ikasturteko matrikulan harremanetarako eman zenuen telefono-zenbakira.
- **Familia ugariaren txartela:** familia ugariaren txartela baduzu, txarteleko zenbait datu sartu beharko dituzu.
- **Kontu zenbaki osoa**: bertan helbideratuko dizugu matrikularen ordainketa.
- **Banku-txartela edo banka elektronikoaren pasahitzak, matrikula helbideratzearen bidez ordaindu nahi ez baduzu:** matrikulazio-prozesu honen azken urratsean, aukera izanen duzu zure matrikula banku-txartelaren **edo** banka elektronikoaren bidez ordaintzeko. *Ordainketa on line egin nahi ez baduzu, urrats honetan aukera izanen duzu ordainagiri bat inprimatzeko banku-entitatera eraman eta matrikula ordaintze aldera.*

**IRAKURRI ARRETAZ** jarraibide guztiak, bereziki matrikula ordaintzeko EPEAri dagozkionak.

**Gogoan izan ordainagiriaren zenbatekoa ordaintzeko epea amaitu baino lehen ordaindu ezean, Eskolan ikaspostua galduko duzula!!**

Orain matrikula egiteko prozesuan zehar ikusiko dituzun pantailak erakutsi eta hainbat argibide emanen dizkizugu laguntza modura.

# LEHENENGO PANTAILA:

## Joaquín Maya Musika Eskola Berezian matrikula webgunearen bidez egitea

### Hasi aurretik

**Abisua**

Ohar garrantzitsua: Espediente-zenbakia beharko duzu matrikula-izapidearekin hasteko. Sms eta/edo e-mail bidez jaso duzu, eta, joan den ikasturtean ikasle izan bazara, noten buletinean ere jasota dago.

Matrikula kasu hauetan soilik izanen da baliozkoa:

1.- "Matrikula-proposamenaren datuak" urratsean, "Baldintza eta zehaztapenen onarpena" atalean matrikula-proposamena onartzen baduzu, dagokion laukian klik eginda.

2.- Ordainagiria ordaintzeko epea amaituta, prezioa ordaindu duzu. ADI: EZ BADUZU MATRIKULA EPEAN ORDAINTZEN, MUSIKA ESKOLAN DUZUN IKASPOSTUA GALDUKO DUZU.

[Izapidea bertan behera utzi] [Hurrengoa →]

Azken aurreko pantailara iristean, “matrikula-proposamenaren datuak” urratsa ikusiko dizu (ikusi gida honetako 12-13. orrialdeak):

**Baldintza eta zehaztapenen onarpena**

☐ Onartzen dut proposamena, eta erantzukizuna hartzen dut ezen emandako datuak egiazkoak direla eta, gezurrezkoak balira, neure gain hartzen ditudala sor litezkeen kalte-galerak.

Datuen babesa: Iruñeko Udala da arduradun Musika Eskolak antolatutako jarduera eta ikastaroetako behin-behineko izen-emateak, matrikulak eta antolamendua kudeatzeko aldera erabiliko diren datu pertsonalen tratamenduaz. Datu horiek betebehar publikoak gauzatzean biltzen dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko -zuzenak ez badira-, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.iruna.es webgunean kontsultatu ditzakezu.

## IKASLEA IDENTIFIKATZEKO PANTAILA

Sartu matrikula egin behar duen ikaslearen espediente zenbakia eta jaiotze-data.
Gogoratu kodea bidaliko dizugula behin-behineko izen-ematean edo aurreko ikasturteko matrikulan harremanetarako eman zenuen telefono-zenbakira edo posta elektronikora.



Joaquín Maya Musika Eskola Berezian matrikula webgunearen bidez egitea

Hasteko...

*Eman beharreko datuak

Ikasturtea: 2021-2022

*Ikaslearen espediente-zenbakia:

*Jaiotze-data :

Aurrera egiteko, sarbide-gako bat bidaliko dizugu.

Sarbide-kodea bide hauetatik jaso nahi dut:

- E-posta
- SMS

Egin klik "Hurrengoa"-ren gainean sarbide-gakoa jasotzeko. Segundo batzuk har ditzake zure telefonora edo helbide elektronikora heldu arte.

Izapidea bertan behera utzi

Hurrengoa

# "SARBIDE-KODEA" PANTAILA

Sartu hemen sms edo posta elektroniko bidez jaso berri duzun kodea.



# “PERTSONA ORDEZKARIAREN DATUAK” PANTAILA

## Pantaila hau ikusiko duzu bakarrik matrikula egin behar duen ikasleak 18 urte baino gutxiago baditu!!

### Joaquín Maya Musika Eskola Berezian matrikula webgunearen bidez egitea


Ordezkariaren datuak

18 urtetik beherako ikasleen kasuan, haren ordezkariaren datuak eman.

*Eman beharreko datuak

Pantailako datuak egiaztapenerako dira eta ezin dira aldatu.

Bat etorri behar dute behin-behineko izen-ematean eman zenizkigun ikaslearen aita/ama/legezko tutorearen datuekin, horiek baitira ikaslearen fitxan jasota ditugunak.

*NAN, AIZ edo pasaportea:

*Agiri-zenbakia:

*Izena:

*Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Izapidea bertan behera utzi

Hurrengoa

## “IKASLEAREN DATUAK” PANTAILA

Pantaila honetan sartu behar dira datu pertsonalak, kenkariak (deskontuak matrikulan), eta, azkenik, irudiak argitaratzeko eta irtenaldiak egiteko baimenak.

**Datu pertsonalak:** Zuekin komunikatu ahal izateko, telefono mugikorreko zenbaki bat, eta posta elektronikoko helbide bat eskatuko dizkizuegu. Ikasturtean zehar posta elektroniko bidez bidaliko dizkizuegu hamaika komunikazio, kontzertu-programa, jarduera, eta abar.



**Kenkariak:** Familia ugariei edo desgaitasunen bat dutenei zuzendutako deskontuetarako ez da beharrezkoa agiriak bidaltzea. Matrikulan bestelako deskonturen bat badagokizu, **escuelamusica@pamplona.es** posta elektronikora agiriak epearen barruan bidali eta matrikula-proposamenaren datuetan kalkulatuta ikusiko duzu zure deskontua ("matrikula-proposamena" pantaila, 12-13. orrialdeetan)


Kenkariak

**Murriztapen eskuragarriak dokumentaziorik aurkeztu beharrik gabe** (betiere, espresuki ematen bazaio baimena Musika Eskolari beste Administrazio Publikoetan eskuragarri dagoen informazioa kontsultatzeko)

Aukera hauetakoren bat hautatu:

- ○ Familia ugaria, kategoria OROKORRA
- ○ Familia ugaria, kategoria BEREZIA
- ○ Legez aitortuta % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten ikasleak
- ○ Ez dagokit ezein murriztapenik edo aurkeztu dut jada behar den dokumentazioa Musika Eskolan

**Beste murriztapen batzuk egiteko** eskolan dokumentazioa aurkeztua eduki beharko duzu **matrikula on line egin baino lehen**

Ordaintzeko era

# Berri-berria!! Banku-helbideratzearen bidez ordain daiteke

“Ikaslearen datuak” atalean ordainketa-modua adieraz dezakezu. Matrikularen ordainketa kontu zenbaki batean helbideratu nahi baduzu, lauki hau markatu behar duzu:

Ordaintzeko era

☐ Matrikula helbideratu nahi dut hurrengo pausuan adieraziko dudan kontu zenbakian

Matrikula helbideratzearen bidez ordaintzeko hurrengo urratsa (**pantaila hau bakarrik ikusiko duzu ordainketa-modu hau aukeratu baduzu!**):

Joaquín Maya Musika Eskola Berezian matrikula webgunearen bidez egitea

Banku-helbideratzea

*Eman beharreko datuak

SEPA araudi berria egokitu eta gero, Espainiako banku-kontuek 24 karaktere dituzte. Lehen biak herrialdeari dagozkio, eta hurrengo biak kontrol-digituak dira. Gero lau digitu datoz, banku-entitatea identifikatzekoak; ondoren, beste lau, sukurtsalari dagozkionak; hurren, bi kontrol-digitu, entitatea eta sukurtsala balidatzekoak, eta, azkenik, kontuaren zenbakia osatzen duten hamar digituak. Informazio hori zure aurrezki-libretan aurkituko duzu; bestela, zure bankura jo, eta hor 24 digitu horiek emango dizkizute.

*IBAN:

BIC:

Izapidea bertan behera utzi | Aurrekoa | Hurrengoa

# FAMILIA UGARIEI ETA DESGAITUEI ZUZENDUTAKO KENKARIEN PANTAILAK

**Kenkari horietakoren bat eduki ezean, jo ezazu gida honetako 12. orrialdera.**

**Familia ugariak:** aurreko ikasturtean matrikula egitean kenkari hori izan bazenuen, zure datuak jada beteta egonen dira. Bestela, sartu familia ugariaren agiriko datuak pantaila honetan.

**Joaquín Maya Musika Eskola Berezian matrikula webgunearen bidez egitea**

## Murriztapenen datuak

*Eman beharreko datuak

**Abisua**

Datuak dagokion Administrazio Publikoan egiaztatu eta gero ondorioztatzen bada ez dagokizula murriztapenik, Musika Eskolak ordainagiri bat igorriko du ordaintzeke dagoen zenbatekoarekin bat. Ordainagiria ordaintzeko epea amaitu baino lehen ordaindu ezean, Musika Eskolak ulertuko du uko egiten diozula ikaspostuari.

**Familia ugariko agiriaren titularraren datuak**

*NAN, AIZ edo pasaportea:
*Agiri-zenbakia:
*Izena:
*Lehen abizena:
Bigarren abizena:
*Jaiotze-data :

**Familia ugariko agiriaren datuak**

Agiria ematen duen Autonomi Er
*Agiriaren zenbakia:
*Iraungitze-data:

**Baimena**

☐ Baimena ematen diot Iruñeko Udalari beste Administrazio Publikoetako Familia Ugariko agiriari dagozkion datuak kontsultatzeko, "Joaquín Maya Udal Musika Eskolak ematen dituen ikasketetan izena eman eta parte hartzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak erregulatzen dituen arauan" ezarritako prezio-murriztapenak bideratze aldera.

Izapidea bertan behera utzi | Aurrekoa | Hurrengoa

**Desgaitasunen bat duten ikasleak:** aurreko ikasturtean matrikula egitean kenkari hori izan bazenuen, zure datuak jada beteta egonen dira. Bestela, sartu datuak pantaila honetan.

## Joaquín Maya Musika Eskola Berezian matrikula webgunearen bidez egitea

### Murriztapenen datuak

*Eman beharreko datuak

**Abisua**

Datuak dagokion Administrazio Publikoan egiaztatu eta gero ondorioztatzen bada ez dagokizula murriztapenik, Musika Eskolak ordainagiri bat igorriko du ordaintzeke dagoen zenbatekoarekin bat. Ordainagiria ordaintzeko epea amaitu baino lehen ordaindu ezean, Musika Eskolak ulertuko du uko egiten diozula ikaspostuari.

**Desgaitasun-ziurtagiriari dagozkion datuak**

Agiria ematen duen Autonomi Er

*Desgaitasun-maila:

*Eragin-data:

Erantsi ziurtagiriaren iraungitze-data, BALDIN ETA desgaitasunaren aitortza IRAUNKORRA EZ BADA.

Iraungitze-data:

**Baimena**

☐ Baimena ematen diot Iruñeko Udalari beste Administrazio Publikoetako Desgaitasun-ziurtagiriari dagozkion datuak kontsultatzeko, "Joaquín Maya Udal Musika Eskolak ematen dituen ikasketetan izena eman eta parte hartzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak erregulatzen dituen arauan" ezarritako prezio-murriztapenak bideratze aldera.

Izapidea bertan behera utzi | Aurrekoa | Hurrengoa

# MATRIKULA-PROPOSAMENA

Ia amaitu duzu! **Egiaztatu ongi datuak proposamena onartu baino lehen.**

## Joaquín Maya Musika Eskola Berezian matrikula webgunearen bidez egitea

### Matrikula-proposamenaren datuak

*Eman beharreko datuak

Abisua

Hona jarraian **matrikula-proposamena, 2021-2022**ko ikasturterako, betiere zure ikasle-espedientearen datuekin bat. Halaber, ikusgai jarri dugu matrikula gauzatzeko ordaindu behar den **zenbatekoa** Ordaindu behar duzu matrikula gauzatu ahal izateko.

Matrikula-ordainagiria (hurrengo pantaila):

- Dagozkizun murriztapenak aplikatuta matrikularen zenbatekoa zero bada, murriztapen hori jasotzen duen matrikula-ziurtagiria deskargatzen ahalko duzu.
- Matrikularen ondorioz zenbatekorik ordaindu behar izanez gero, ordainagiri bat sortuko da, on line ordaindu daitekeena (txartelaz edo banku elektronikoaz), edo bestela inprimatu daitekeena, entitate laguntzaileetako edozeinetan ordaintzeko.

**ADI!:** matrikularen zenbatekoa ORDAINTZEKO EPEA AMAITU BAINO LEHEN ordaindu ezean, **MUSIKA ESKOLAK ULERTUKO DU** UKO EGITEN DIOZULA IKASPOSTUARI.

Proposatutako irakasgaien zerrenda

| Asignatura | Ikasturtea |
|---|---|
| LENGUAJE MUSICAL | 0º |
| CORAL | 0º |
| INSTRUMENTO - INICIACION | 0º |

☐ Musika-hizkuntzako maila-proba egiteko eskatzen dut

**Musika Hizkuntzako ikasketak eginak** izan eta maila-proba bat egin nahi izanez gero, nahitaezko baldintza izanen da 2012tik aurrera jaiotakoa izatea.

Ordainagiriaren datuak ere ikusiko dituzu (ordaindu beharrekoa):

Ordainagiriaren datuak

Ordainagiriaren titularra: 4 L - O

Hasierako zenbatekoa (eurotan): 302,9

Kenkaria (eurotan): 0

Ordaindu beharrekoa (eurotan): 302,9

... baita ordainagiri bakoitzaren zenbatekoa ere, **horretarako ezarritako epean ordainketa bi epetan egitea eskatu bazenuen**:

**Ordainagiriaren datuak**

Ordainagiriaren titularra: 4 L - O

Hasierako zenbatekoa (eurotan): 302,9

Kenkaria (eurotan): 0

Ordaindu beharrekoa (eurotan): 302,9

**Baldintza eta zehaztapenen onarpena**

☐ Onartzen dut proposamena, eta erantzukizuna hartzen dut ezen emandako datuak egiazkoak direla eta, gezurrezkoak balira, neure gain hartzen ditudala sor litezkeen kalte-galerak.

Datuen babesa: Iruñeko Udala da arduradun Musika Eskolak antolatutako jarduera eta ikastaroetako behin-behineko izen-emateak, matrikulak eta antolamendua kudeatze aldera erabiliko diren datu pertsonalen tratamenduaz. Datu horiek betebehar publikoak gauzatzean biltzen dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko -zuzenak ez badira-, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.iruna.es webgunean kontsultatu ditzakezu.

**Informazioa, matrikula baliogabetzeari eta tasen itzulketari buruz**

Matrikula baliogabetu daiteke eta tasen zenbatekoa bueltan jaso, honako bi kasuetan:

1.- Ikastaroa edo irakasgaia Udalak uzten badu bertan behera, tasen zenbateko osoa itzuliko da.

2.- Ikaspostuari irailaren 30a baino lehen uko eginez gero, eskubidea izango da matrikula-tasen zenbatekoa jasotzeko, salbu eta administrazio- eta kudeaketa-gastuen zenbatekoa (40 euro, Joaquín Maya Musika Eskola Bereziak ematen dituen ikasketetan izena eman eta parte hartzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak erregulatzen dituen 7. arauaren arabera).

**Irakasgaien proposamena eta matrikula-zenbatekoa zuzenak badira, "Hurrengoa" botoia sakatu.**

Izapidea bertan behera utzi | Aurrekoa | Hurrengoa →

# AZKEN URRATSA: MATRIKULA-ORDAINAGIRIAREN ORDAINKETA

Matrikularen ordainketa helbideratu baduzu (epe bakarrean ordainduta), honako pantaila hau ikusiko duzu:

## Joaquín Maya Musika Eskola Berezian matrikula webgunearen bidez egitea

### Deskargatu orainagiria edo ziurtagiria

Kontuan zorduntzeko data: **2021-06-14**

IBAN: **ES **** ****

Ordaindu beharrekoa (eurotan): **302,9**

Itxi izapidea | Beste matrikula bat | Deskargatu PDF

Ordainketa helbideratu baduzu, eta bi epetan ordaintzea eskatu bazenuen, honako pantaila hau ikusiko duzu:

## Joaquín Maya Musika Eskola Berezian matrikula webgunearen bidez egitea

### Deskargatu orainagiria edo ziurtagiria

Kontuan zorduntzeko data: **2021-06-14**

IBAN: **ES **** ****

Lehen epeari dagokion zenbatekoa: **151,46**

Datorren urtarrilean bigarren epea ordaintzeko abisua jasoko duzu, eta hura helbideratzen ahalko da bakarrik lehen epe hau ere helbideratzen bada. ORDAINAGIRIAREN ZENBATEKOA ORDAINTZEKO EPEA AMAITU BAINO LEHEN ORDAINDU EZEAN, MUSIKA ESKOLAK ULERTUKO DU UKO EGITEN DIOZULA IKASPOSTUARI.

Itxi izapidea | Beste matrikula bat | Deskargatu PDF

Ez baduzu helbideratzearen bidez ordaintzea aukeratu, eta matrikularen zenbatekoa orain ordaindu nahi baduzu zure banku-txartelaren edo banku elektronikoaren bidez

## Joaquín Maya Musika Eskola Berezian matrikula webgunearen bidez egitea

### Deskargatu orainagiria edo ziurtagiria

ORDAINKETAREN INGURUKO JARRAIBIDEAK

**ADI!: matrikularen zenbatekoa ORDAINTZEKO EPEA AMAITU BAINO LEHEN ordaindu ezean, MUSIKA ESKOLAK ULERTUKO DU UKO EGITEN DIOZULA IKASPOSTUARI.**

Ordaintzeko, kanal hauek erabil ditzakezu:

1.- Webgunean ordaintzea. Aukera honetan, ordainketa berehalakoa da, eta bankuko txartelarekin edo banku elektronikoaren bidez egin daiteke.

2.- Entitate laguntzaile batean ordaintzea. Hona hemen jarraibideak: PDFa deskargatu, eta bertan ageri diren ordainketa-lekuetako edozeinetan aurkeztu. Behin ordainduta, Udalean jasoa gelditUko da 24-72 orduko epean.

Ordaintzeko epemuga: **2021-06-14**

Ordaindu beharrekoa (eurotan): **302,9**

[Sartu webguneko ordainketara]

[Itxi izapidea] [Beste matrikula bat] [Deskargatu PDF]

Ez baduzu helbideratzearen bidez ordaintzea aukeratu, eta ordainagiria inprimatu eta banku-entitate batera joan nahi baduzu. **Gogoratu behin ordainagiria inprimatuta, 10 egun izanen dituzula ordaintzeko!**




Espero dugu gida hau lagungarri izatea!

Gogoratu, zalantza edo arazorik izanez gero, mezu bat idatz dezakezu escuelamusica@pamplona.es helbidera edo 948420985 – 948420986 eta 010 telefono-zenbakietara deitu (edo 948420100 zenbakira, Iruñeaz kanpotik deituz gero)